

## EUSKAL UNIBERTSITATEA

**ILDO ESTRATEGIKOA:** Euskal Unibertsitatea sortzeko zeregina bere gain hartu

**ARLOA:** EUren sorrera

---

### URTEKO HELBURUAK:

1. Euskal Unibertsitatea sortzeko norabidean, dagoeneko finkatuta ditugun hiru ezaugarriak egungo UEUn garatu: nazionala, euskalduna, eta herritarra. Bereziki, herritartasunaren ezaugarria garatu, pertsonen arteko berdintasun partehartzailea sustatuz UEUko organoetan, lantaldean, eta jardueretan.
2. Euskal Unibertsitatea sortzeko norabidean, GOI ikastegiaren barruan, 2025-2026 ikasturtean lau titulazio ofizial (gradu, master edo graduondoko ofizial) eskaintzeko urratsak ematea Eusko Jaurlaritzarekin eta UPV/EHU unibertsitate publikoarekin batera.
  - UPV/EHUrekin atxikitze-hitzarmena berritzea.
  - Eraldaketa digitalaren bidetik, GOI ikastegia indartuz, UEUren proiektua sendotzea.
  - GOI ikastegia bizialdi osoko ikaskuntzan euskaraz eta online erreferentzia-zentro bihurtzea.
3. Ildoaren gizarteratzeari begira, komunikazio-euskarriak (webgunea, iritzi-artikuluak, elkarrizketa, ikus-entzunezkoak...) ekarpen estrategikoekin elikatzea eta lerroari buruzko gogoeta publikoa sustatzea (mahai-inguruak, solastUEU...).

## JARDUERA AKADEMIKOA. Unibertsitate-mailako eta etengabeko prestakuntza

**ILDO ESTRATEGIKOA:** Unibertsitate-mailako ezagutzaren sorkuntza eta zabalkundea euskaraz ahalbidetu. Goi-mailako formazioa eskaini, Komunitate Zientifiko Teknikoa trinkotu eta etengabeko formazioa eskaini

**ARLOA:** JARDUERA AKADEMIKOA. Unibertsitate-mailako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza. 2023-2024 IKASTURTEA

---

### HELBURU OROKORRAK:

1. GOI ikastegi atxikitik etengabeko prestakuntzarako eskaintza zabaltzea graduondoko zein ikastaro bidez.
2. Moodle-ren bidez online ikastaroak sortzeko ibilbidearen bigarren ziklo osoa ematea. Emandako bi ekitaldiak baloratu eta aurrera begira estrategia berriak diseinatzea.
3. Jarduera akademikoaren eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza betetzea: ikuspegi feminista bermatzeko irizpide akademiko-pedagogikoak sortzea, aplikatzea eta baloratzea.

### AZPIARLOA: AHOLKULARITZA PEDAGOGIKOA

#### URTEKO HELBURUAK:

1. UEUren online irakaskuntzarako irakasleen formazio eta aholkularitza pedagogikoaren plana aurrera eramatea eta doitzea, irakasle-ikertzaileak online ikaskuntzarako eredu pedagogikoan formatuz eta aholkularitza pedagogikoa eskainiz.
2. Onlineko eskaintzaren ikas-irakaskuntzarako baliabide teknopedagogikoak sortzea.
3. Ikasgela Birtuala kudeatzea eta funtzionalitate berriak egokitzea.

4. UEUren online ikaskuntzarako eredu pedagogikoaren etengabeko hobekuntzaren zaintza egitea.
5. Aurrez aurreko irakaskuntzarako UEUren irizpide eta aholku pedagogikoak aplikatzea.

## **AZPIARLOA: GRADUONDOKO IKASKETAK. MASTER OFIZIALAK ETA BEREZKO TITULUAK**

### **URTEKO HELBURUAK:**

1. Master ofizialak
  - Irakaskuntza Masterraren 4. edizioaren eskaintza kudeatzea: modalitate erdi-presentzialetik irakasle izango direnak prestatzea, profesional gisa beharko dituzten ezagutza eta konpetentzietan.
  - Irakaskuntza Masterraren eskaintza mintegiekin osatzea: euskara eta komunikazioa, teknopedagogia zein generoa eta hezkidetzaren alorrekoak.
  - Ikastegi atxiki gisa, 2025/20206 ikasturterako titulu berri bat diseinatzea: bideragarritasuna eta proposamen akademikoa lantzea.
2. Berezko tituluak
  - Ikastegi atxiki gisa, GOI ikastegiak proposaturiko berezko tituluen 2024/2025 eskaintza aurrera ateratzea: “Euskara eta digitalitate” (18 ECTS) eta “Hezkidetzatik pedagogia feministetara: Euskal Curriculuma iparrorratz” (18 ECTS).
  - UPV/EHUko Doktorego Eskolarako eskaintza diseinatu eta eskaintzea: doktoregaien prestakuntza-etapan eskaintzeko euskarazko ikastaroen eskaintza.

## AZPIARLOA: IKERKETA

### URTEKO HELBURUAK:

1. UEUk sustatuko dituen lehentasunezko ikerketa-lerroak definitzea, eta martxan jartzeko eta gauzatzen hasteko urratsak ematea.
2. GOI ikastegiaren ikerketa-marko orokorra osatzea eta ikerketa-estrategia martxan jartzea.
3. Ikerketa Batzordearen barnean, Ikerketa Batzorde Zabala osatzea, genero-parekidetasuna, lurraldetasuna eta diziplinartekotasuna kontuan hartuz.
4. Ikerketaren alorrean, sailak berrantolatzeko proposamen bideragarri bat lantzea.
5. Humanitate Digitalen inguruko ikerketa-lerroa sendotzea.

## AZPIARLOA: JARDUNALDIAK

### URTEKO HELBURUAK:

1. Gogoeta eta hausnarketarako guneak eta komunitate zientifikoa trinkotzeko, jardunaldi espezializatuen antolakuntza sustatzea:
  1. Sailetatik eratorritakoak.
  2. Helburu estrategikoetatik eratorritakoak.
  3. Enkarguzkoak eta elkarlanetik sortutakoak.
2. MoodleMoot Euskadi 2024 antolatzea.

## AZPIARLOA: ESKAINTZA PROPIOA. URTEAN ZEHARREKO IKASTAROAK ZEIN UDAKOAK

### URTEKO HELBURUAK:

1. Markeskoan eta Iruñeko egoitzan, urtean zeharreko ikastaroen eskaintza mantentzea: ikastaroak zein matrikulazio-datuak.
2. Ipar Euskal Herrian urte osorako plangintza integralarekin jarraitzea: egungo elkarlanei eutsi eta partaidetza berriak lortzea.
3. 52. Udako Ikastaroak: ikastaldi-eredu malgu, ireki eta estrategikoagoarekin jarraitzea.

## AZPIARLOA: HITZARTUTAKOAK

### URTEKO HELBURUAK:

1. Erakundeekin elkarlanean aritzeko eskaintza bideratzea eta deialdietara aurkezten jarraitzea: Eusko Jaurlaritzako irakasle eta hezitzaileen etengabeko prestakuntzarako programak, Haurreskolak partzuergoko hezitzaileen formazio-programa eta Nafarroako Gobernuako lankidetzak-lerroa.
2. Eibarko Udalarekin lankidetzan, Hiri Hezitzailearen proiektuan, eragileen arteko saretzean lan egin eta hiriaren beharretara egokituz prestakuntza eskaintzea.
3. Ikastetxe eta erakundeetatik jasotzen ditugun kanpoko eskaerei erantzutea.

## MATERIALGINTZA

**ILDO ESTRATEGIKOA:** Unibertsitate-mailako ezagutzaren sorkuntza eta zabalkundea euskaraz ahalbidetu. Komunikazio zientifikoa eta goi-mailako dibulgazioa sustatu

### ARLOA: MATERIALGINTZA

---

#### HELBURU OROKORRAK:

1. Unibertsitate-mailako argitalpenak sustatu eta editatzea.
2. Argitalpenen kalitatearen bermea indartzen jarraitzea.
3. Materialgintzaren eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza betetzea: ikuspegi feminista bermatzeko hizkuntza-oharrak sortzea, aplikatzea eta baloratzea.

#### AZPIARLOA: LIBURUGINTZA

#### URTEKO HELBURUAK:

1. Kalitatezko unibertsitate-mailako produkzioa bultzatzea: liburugintzako deialdia bideratu eta kudeatzea.
2. Liburuak argitaratzea: 10 liburu berri kaleratzea.
3. Unibertsitate-liburuaren sorkuntza sustatzeko diru-poltsen XXIII. deialdia bideratu eta kudeatzea.
4. Argitalpenen finantzaketarako bide berriak zabaltzea.
5. Onlineko argitalpenak bideratzeko eredu desberdinak aztertzea.
6. Erreferentzien eta bibliografiaren gidaliburua webgunean ikusgai jartzea.

## AZPIARLOA: **ALDIZKARIAK**

### URTEKO HELBURUAK:

1. *UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria*
  - 4 zenbaki berri argitaratzea.
  - Kalitate-adierazleen gorabeheren jarraipena egitea eta posiziorik ez galtzea.
  - Kudeaketa Aurreratuaren ereduak ikasitakoa aldizkariaren kudeaketan aplikatzen hastea.
2. *OSAGAIZ* aldizkari digitala
  - 2 zenbaki berri argitaratzea.

## **INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK**

**ILDO ESTRATEGIKOA:** Euskal komunitate unibertsitarioaren bilgunea egituratu. Jardun eta espazio berriak sortu, garatu eta sustatu

### **ARLOA: IKT PROIEKTUAK**

---

### **HELBURU OROKORRAK:**

1. UEUren baliabide teknologikoen etengabeko zaintza egitea eta eguneratuta mantentzea.
2. Ingurune teknologikoaren aldaketak eta tendentziak jarraitu, aztertu eta ebaluatzea.

## AZPIARLOA: DATU-BASEAK

### URTEKO HELBURUAK:

#### 1. Inguma

- Produkzio-iturrien (argitaletxe, aldizkari, unibertsitate eta erakundeak) ezaugarriei egokitutako ekoizpenaren katalogazio eguneratu eta kalitatezkoa mantentzea.
- Inguman erregistro berriak gehitzeko datu-bilketa-automatikoa garatzea.
- Ikerketarako langaia bildu eta datuen babesa bermatzeko, datu-baseko metadatuak eta esteka duten erregistroen dokumentuak biltegitratzea.

#### 2. Tesiker

- 3 doktore-tesi berri digitalki argitaratzea eta beste unibertsitateetako 50 tesiren metadatuak kudeatzea.
- Euskarazko Doktore-tesien Datu-baseko datuen berrikuspen eta zuzenketa orokorra egitea.

#### 3. Gordailua

- UEUren egitasmo berrien euskarri izango den dokumentu digitalen bilketarako gordailu berria garatu eta UEUko materialarekin hornitzea.



## AZPIARLOA: MATERIALGINTZA. SAREKO PROIEKTUAK

### URTEKO HELBURUAK:

1. Ezaugarrien araberako formatuetan (PDF zein ePub), liburuak formatu digitalean argitaratzea. Autore-irakurle elkarreragina errazteko, formatu berriak aztertzea.
2. Webgunean argialetxearen azpiatalak eguneratzea eta eduki berriekin hornitzea. Horrek webgune berrian izango duen posizio berria zabalkunderako baliatzea.
3. UEUko aldizkari guztiak, OJS sistemaren azken bertsioan argitaratzea (*Uztaro, Osagaiz, Kondaira eta Aldiri*).

## PROZESU EUSKARRIAK. Kudeaketa orokorra: erakundea eta egitura

**ILDO ESTRATEGIKOA:** Egitura profesionala optimizatu

**ARLOA:** PERTSONAK, BALIABIDEAK ETA ZEHAR-LERROAK

---

## AZPIARLOA: ERAKUNDEA

### URTEKO HELBURUAK:

1. Erakundearen eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza betetzea: egiturako geruza guztietan berdintasunaren gaia lantzea.
2. Eraso matxistak kudeatzeko UEUren protokoloaren berri ematea, barrura zein kanpora begira.

## AZPIARLOA: **PERTSONAK**

### URTEKO HELBURUAK:

1. Lantaldearen eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza betetzea: lan egiteko kultura berdinzalea esplizitatzea eta ezagutaraztea.
2. Lantaldean trebakuntza eta garapen profesionalaren gaia planifikatzea eta sistematizatzea.
3. Lan-osasuna eta segurtasuna genero-ikuspegiarekin hobetzea.

## AZPIARLOA: **BALIABIDE MATERIALAK**

### URTEKO HELBURUAK:

1. Eraikinetako mantenu-lanak bideratzea.
2. Espazioak kudeatzea eta baliabideak zerbitzu eta erabilera-beharretara egokitzea.

## AZPIARLOA: **FINANTZAKETA**

### URTEKO HELBURUAK:

1. Egitura sendo mantentzeko finantzaketa egonkortzea.
2. Dirulaguntzen dibertsifikazioa gauzatzea eta proiektu eta lerro berrientzat lortzea.
3. Erakundearen berdintasunaren gaia lantzeko baliabideak esleitzea.

## AZPIARLOA: KOMUNIKAZIOA

### URTEKO HELBURUAK:

1. Barne-komunikazioa
  - Komunikazio Taldea indartzea.
  
2. Kanpo-komunikazioa
  - Euskal komunitate zientifiko-intelektuala, bereziki gaztea, ezagutzera ematea: Ikerl(H)ari egitasmoari jarraipena ematea.
  - Erakundearen eragin-esparruan, berdintasun-planaren plangintza betetzea: komunikazio berdinzailea aplikatu eta zabaltzea.

## AZPIARLOA: AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOA

### URTEKO HELBURUAK:

1. Aldizkarien OJS bidezko kudeaketa sendotzea.
2. Sareko baliabideen atzigarritasuna biltegi libreen bidez bideratzea (Dspace).
3. Webguneen datu estatistikoaren burujabetza sendotzea (Matomo).
4. Ikasteko ekosistema teknologikoa garatzea.